

PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 01 - DIPUTATU NAGUSIA
Atala: 0110 - Diputatu Nagusiaren Kabinetea
Programa: 100 - Diputatu Nagusiaren Kabinetea
Funtzionala: 912 - Gobernu organoak

Programa mota:

Departamentuaren egitura

Misioa:

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen egitekoa da diputatu nagusiari bere eginkizunak betetzen laguntzea, Foru Aldundi osorako ikuspegi estrategikoa bultzatuz 2024-2027 Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera, eta baita legealdiko gobernu programa dinamizatzea ere.

Egoeraren diagnostikoa:

2024-2027 Plan Estrategikoa Foru Aldundiaren jardura gidatzen duen oinarritzko orientazio estrategikoa da. Legealdian gobernuaren ekintza gidatzeko eta bideratzeko tresna nagusia da plana, tresna bizia, dinamikoa eta parte-hartzailea, eta lurraldearen eta erakundearen erronka nagusiak, lortu beharreko helburu estrategikoak eta ezarpenean eraginkortasuna bermatzen duten gobernantza mekanismoak jasotzen ditu. Lurraldearen ikuspegi abangoardista formulatzen da, komunitate arduratsu, berdintasunezko, orekatu eta bidezako baten beharra azpimarratuz, eta pertsona guztien ongizate integrala zaintzen duena, bizitza proiektu osoak eta zentzudunak garatu ahal izateko. Aurreko legealdietan eskuratutako ikaskuntzak oso baliagarriak izan dira, plana Etorkizuna Eraikizen esparruan eta haren printzipioen arabera eraiki baita, lankidetzazko gobernantza aurre hartzailearen logikan.

Gainera, diputatu nagusiak bere ardurapean eta gidaritzapean hartzen ditu agintaldi honetan foru gobernuaren ekintzaren oinarri izango diren izaera horizontaleko esparruak, hala nola: legealdi berriko plan estrategikoa eta Etorkizuna Eraikiz ereduak, hizkuntza berdintasuna, genero berdintasuna, kultura demokratikoa, herritarrekin komunikazioa, udalekin eta beste erakunde batzuekin harremanak.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere plangintzan sartu ditu NBEren Garapen Jasangarriko Helburuekin (GJH). Aurrekontu programa honen kasuan, 5, 16 eta 18. helburuetan oinarritzen da: Genero berdintasuna, Bakea, justizia eta erakunde sendoak, eta, azkenik, Kultura eta hizkuntza aniztasuna.

Beharraren deskribapen xehatua:

Diputatu nagusiari dagozkion lidergo eta koordinazio funtzioen esparruan, Diputatu Nagusiaren Kabinetea aurrekontuan jasotzen dira gobernuaren jardueraren koordinazioari eta jarraipenari eta legealdi berriaren plan estrategikoaren koordinazioari dagokion aurrekontu zuzkidura.

Nori zuzendua:

Foru gobernuak: diputatuak, zuzendariak...
Langileria.
Herritarrek.

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Langilegoa, laguntza teknikoak eta finantza baliabideak.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Koordinazio bilerak.
Diputatuen Kontseiluaren bilkurak prestatzea.
BBNNetako agerraldiak.
Kontratuak, diru laguntzak ematea...

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Orientazio politikoa.
Jarraibideak.
Ekintza ofizialak eta protokoloa.

Programaren arau esparrua:

Arloz arloko administrazio arautegia eta administrazio arautegi orokorra.
6/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoa.
3/2019 Foru Dekretua, ekainaren 29koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak, eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoa.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Lankidetzan oinarrituta, Gipuzkoako Foru Aldundi aurre-hartzailea, ekintzailea eta eraginkorra

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Lankidetzazko gobernantza aurre-hartzailearen garapenaren aurrerapen maila	Ehunekoa	>=	4,50	4,50	5,00	7,00
Digitalizazio planaren aurrerapen maila	Ehunekoa	>=	60,00	57,00	100,00	100,00
Erretiroa hartuko duten teknikarien % 90ean belaunaldi ondorengotza ziurtatzeko prozesuan parte hartzea	Ehunekoa	=	90,00	90,00	90,00	90,00
Gobernantza aurre-hartzailearen eredura jarduera eredua diseinatzea eta hedatzea	Ehunekoa	=	100,00	100,00	100,00	100,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:

Etorkizuna Eraikizen markoan eta logikan, plan estrategikoa diseinatzea, hedatzea, eguneratzea eta ebaluatzea.

 % 1,30	 % 97,39	 % 1,30				
	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	3.123.049,98	300.000,00		2026/01/01	2028/12/31	
1.1 Ekintza Foru gobernuaren jardueraren orientazioa finkatzea.	632.072,97			2026/01/01	2026/12/31	
1.2 Ekintza Gizarte zibilaren eta lurraldeko eragileen ekimen bereziak.	751.864,01	300.000,00		2026/01/01	2028/12/31	
1.3 Ekintza Plan Estrategikoan jasotako helburu guztien lidergotza eta gauzatzearen gainbegiratzea.	776.761,71			2026/01/01	2026/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.4 Ekintza Gipuzkoako Lurralde Historikoko protokolo eta ordezkaritza ekitaldiak.	873.078,75			2026/01/01	2026/12/31	
1.5 Ekintza Berdintasunaren arloko erreferentziako arau esparrua garatzen duten xedapenak, jarraibideak eta estrategiak onartzea.	44.636,27			2026/01/01	2026/12/31	
1.6 Ekintza Kontratuak egiterakoan hizkuntza berdintasuna lortzeko klausulen gida aplikatzea.	44.636,27			2026/01/01	2026/12/31	

GENERO BERDINTASUNeko PLANA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Programak ukitzen duen kolektiboa:

Populazio osoa

Programak ukitutako gaitasuna(k):

Gizartean eta politikan parte hartu ahal izatea

Beharraren deskribapen xehatua:

Azken urteotan aurrerapauso handiak ematen ari diren arren, oraindik urrun dago emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaz hitz egitea. Horregatik, eutsi egin behar zaio emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan foru politikak bultzatzeari, bai eta foru gobernuaren ekintzan genero ikuspegia modu eraginkorrean ezartzen ari ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoarekin lankidetzan.

Kuantifikazioa: 0,00 (% 0,00)

Ordainketa kredituak: 0,00 (% 0,00)

Datozen urteetako gastuak: 0,00 (% 0,00)

HIZKUNTZA BERDINTASUNeko PLANA

Beharraren deskribapen xehatua:

Nahiz eta, formalki, lurralde honetako bi hizkuntza ofizialek onarpen bera duten, argi dago haien hizkuntza egoera ez dela berdina. Horregatik, bi hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna lortzeko euskararen aldeko neurriak hartzeari eutsi behar zaio, bai eta Foru Aldundiaren gobernu ekintzan hizkuntza berdintasunaren ikuspegia eraginkortasunez ezartzeari ere, Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritzarekin lankidetzan.

Kategoria	Nola
2.- Lidergoa	Euskararen erabilera lehenetsiko da foru gobernuaren jardueraren orientazioa finkatzean
	Euskararen erabilera lehenetsiko da Plan Estrategikoaren helburuen lidergoan eta ikuskapenean
	Lehentasunez euskararen erabilera erabiliko da
6.- Hizkuntza-klausulak	Kontratazioa prestatzerakoan, hizkuntz beharrak aztertuko dira, eta horien arabera espedientean dagozkion klausulak jasoko dira.
8.- Herritarrekiko harremanak	Euskararen erabilera bultzatuko da
10.- Kanpo-harremanak	Protokolo eta ordezkaritza ekitaldietan euskararen erabilera lehenetsiko da

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Garapen Jasangarriko Helburuei dagokienez, aurrekontu programa honen ekintza lerroak 5- Genero berdintasuna, 16- Bakea, justizia eta instituzio sendoak eta 18- Kultura eta hizkuntza aniztasuna helburuak hartzen ditu kontuan.

Kuantifikazioa: 3.423.049,98 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	5-Genero berdintasuna	44.636,27	
	Genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neskato guztiak ahalduntzea.		
Helburua	5.c - Genero berdintasuna eta emakume eta emakume guztien ahalduntzea sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea, maila guztietan.	44.636,27	
Ekintza lerroak			
	Etorkizuna Eraikizen markoan eta logikan, plan estrategikoa diseinatzea, hedatzea, eguneratzea eta ebaluatzea.	44.636,27	
	16-Bakea, justizia eta instituzio sendoak	3.033.777,44	300.000,00
	Garapen jasangarrirako gizarte baketsuak eta inklusiboak sustatzea, guztioi justiziarako sarbidea erraztea, eta erakunde eraginkorrek eta inklusiboak sortzea maila guztietan.		
Helburua	16.06 - Kontuak emango dituzten erakunde eraginkorrek eta gardenak sortzea maila guztietan	3.033.777,44	300.000,00
Ekintza lerroak			
	Etorkizuna Eraikizen markoan eta logikan, plan estrategikoa diseinatzea, hedatzea, eguneratzea eta ebaluatzea.	3.033.777,44	300.000,00
	18-kultura eta hizkuntza aniztasuna	44.636,27	
	Kultura eta hizkuntza aniztasuna		
Helburua	18.1 - Hizkuntza eta kultura guztien presentzia eta errekonozimendua bermatzea, garapen pertsonal eta sozialerako ezinbesteko faktore gisa	44.636,27	
Ekintza lerroak			
	Etorkizuna Eraikizen markoan eta logikan, plan estrategikoa diseinatzea, hedatzea, eguneratzea eta ebaluatzea.	44.636,27	
Guztira		3.123.049,98	300.000,00

PROGRAMAREN AURREKONTUAREN LABURPENA / RESUMEN DEL PRESUPUESTO DEL PROGRAMA

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2025	2026	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2027	2028	2029	2030 eta hurrengoak/ 2030 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	1.723.771,00	1.785.451,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	564.599,00	622.599,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	523.000,00	715.000,00	150.000,00	150.000,00			300.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	2.811.370,00	3.123.050,00	150.000,00	150.000,00			300.000,00
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES							
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL							
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital							
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	2.811.370,00	3.123.050,00	150.000,00	150.000,00			300.000,00

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capítulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	1.785.450,99				1.785.450,99	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	622.598,99				622.598,99	
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	715.000,00		300.000,00		1.015.000,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	3.123.049,98		300.000,00		3.423.049,98	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL						
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital						
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	3.123.049,98		300.000,00		3.423.049,98	